





Mendi bera burdia  
dator irintzari;  
pago egura dakar  
agaitik kantari.

¡Ama! bota sutara  
egura ugari,  
gero asi gaitezan  
kontuak kontari

- Amboto'ko a txean  
yantzán dau sorgiña,  
akerak yoten dautso  
txistu damboliña.

¡Aita! nik be agoan  
dantzaria miña  
"Gaboñak" esan arte  
baketu eziña.

GABONAK esanda be  
ARTEGA YARRAITU;  
GEYAGO NEURE MIÑAK  
GURA DAU DANTZATU;  
BARRU SORGINKERI  
EZIN DOT ARTEZTU  
? NOK yoten ete dautso  
miñ oneri txistu?



¡Ai! Gabon, gabon sorgin,  
soñulak zura,  
ik darrabik zoratu  
an kaz gora lura;  
igaitik aureskuan  
agure makura  
yantzak lagun daukala  
atzotxu tximura

ZERURA YOAN NIETZAN  
BAŊA ATEA ITXI;  
OR DULIK NEURRE AMAK  
DIŊUSTE NEGARTI.



ESPIDAZU UMETXOA  
ZERUANIZEN BARI? -  
- ZERUAN BARI ONAK  
ORAIN ETA BETI



ZIGAU TA EGUN ZELAN BIZI  
DA AN GOIKO ERRIA? -

- AN EZ DA GOIZ EZ GAURU  
BETI EGUEK DIA -

UME JESUS ZUZARA  
ZERUKO ZALIA

ZUGAZ NIK EZTOT GURA  
NEGAR EGITEA



Jainkoren Semea  
yayo da Belen'en;  
idi ta astoa daukoz  
arinasaz berotzen;  
MARIa eta Jose  
ondoan dbesten;  
ta amaika mila'angeru  
txilibitu yoten

Zeru goian izara  
ei dago negarrez;  
Umiarí yoteko  
musikitarik ez.

¡Ez ein negar! ¡izartxo!  
bekoki tximuréz,  
Guk postuko'gu Umiá  
ASKAN zure ordez.

